



Langile aresoar bat hil da, garabiak azpian hartuta

ISTRIPUA ▶ 41 urteko gizona Madrilgo herri batean (Espainia) ari zen lanean garabiaren besoa hautsi eta kabinaren gainera erori zitzaiotenean ▶ 7

TOLOSA ▶

Musika Banda eta dultzainarien kontzertua

Gaztetxoentzat
prestatu dute saioa ▶ 2

L. MONTES



Alos Quartet-en estreinako kontzertua

TOLOSA ▶ Herrian lehendabiziko aldiz joko du, bihar, Xabier Zeberioaren taldeak ▶ 3

JAVIER SARASA ▶
TXISTULARIA



I. GARCIA

TOLOSA ▶

«Prestutasuna dugu, baina gure eskubideen onarpenetik hasita»

Azken osoko bilkurako parte-hartzeaz eta taldearen egoeraz aritu da Tolosa Bizirik ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Otañoren eta Lasaren desafioa Olasagastiri Tolosako zezen-plazan

«Lehen proban Olasagastik aurrea ez hartzen saiatuko gara», dio Otañok ▶ 6

«Herri askotan txistulariak daude, eta lan asko egiten ari dira»

Omenaldia egingo diote bihar elizan ▶ 4

TOLOSA ▶ POLITIKA

«Prestutasuna dugu baina gure eskubideen onarpenetik hasita»

Tolosa Bizirik herri ekimenak azkeneko osoko bilkuran izan zuten parte-hartzea azaldu eta bere egoera salatu du



Herenegun burutu zuten prentsaurrekoa, Tolosako Kultur Etxean, Tolosa Bizirik-eko kideek. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Iragan astearteko Udaleko osoko bilkuran Tolosa Bizirik taldearen parte-hartzeari buruz Udaleko talde politikoei adierazitakoaren inguruan, herri ekimenak zenbait gauza argitu nahi izan zuten, herenegun burututako prentsaurrekoan.

«Ez gara oldarka sartu, ez

dugu inor iraindu, eta ez dugu inolako eztabaida eten». Horrela azaldu zuten haien jokaera. Hala, «argi eta ozen» hitz egiteko besterik ez ziren azaldu TB-koak udal aretora. «Tolosako bigarren indar politikoa izanik eta gaur egun ordezkaritza demokratikorik gabe aurkitzen den biztanleriaren laurdena ordezkatu arren», ez zuten

gonbidapenik. Hitz egiteko eraren prestutasuna azaldu zuten «akordioetara iristeko eskua luzatuz»; baina «gure eskubideen onarpenetik hasita». Hauxe izan zen, hain zuzen, plataformak helarazi zuten mezua, «eta lortu arte ez dugu etsiko». Haien esanetan, *Tolosa Bizirik* zioen pankarta bat topatzeak «gogaitzen du» Jokin Bilda-

rratz Tolosako alkatea. Alegia, «bere ordezkaritzaren zilegitasunik ezaren ebidentzia aurrez aurre topatzea da» gogaitzen duena.

«Frankismoaren pareko»

Herriaren 750. urteurrena ere ekarri zuten gogora, «demokraziaren izenean, eskubide zibil eta politikoen aurkako historiako bidegabekeria handienetakoa gauzatzen ari direla» adieraziz. Hala, pairatzen duten egoera «frankismo garaian gauzaturiko bidegabekeria» pare jarri zuten.

Halaber, egungo alkatea «herri honen historian *apartheid* politikoa sostengatu eta biztanleriaren laurden baten eskubide zibil eta politikoa urratzen dituen legeri leial jardun duena» bezala gogoratu dutela esan zuten herenegun eguniko agerraldian.

Azken hiru urte hauetan «aitzaki baten atzean ezkatuta» direla salatu zuten, bestalde, Tolosa Bizirik-ek; orain aitzakiarik ez duela gaineratu eta «beraiek ere su-etena emateko prest ote zeuden» galdegin zieten; hau da, «ordezkari zilegien laurdenaren eliminazio politikorekin Tolosako Udalean eskubide zibil eta politikoen aurka gauzatzen den urraketan su-etena ematea».

Ustez Udalak eskaini zien lokalen eta bitartekoaren inguruan plataformakoei esan zuten ez daudela prest «aldarrikapen politikoa albo batera uzteko edota lapurtzen dituzten zinegotzi ez zilegin dimisioa aldarrikatzeari uko egitera». Izan ere, baliabideak izatea «hautesi moduan dagokigun eskubidea da».

TOLOSA ▶

Sahara Bizi taldeak Bertso Jaialdia antolatu du

Hilaren 23an izango da; dirua uholdeen eraginak arintzeko bideratuko dute

N. LATABURU

Tolosako Sahara Bizi taldeak Bertso Jaialdia antolatu du hilaren 23an. Usabal kiroldegian elkartuko dira, 18:00-etatik aurrera. Bertaratu nahi dutenek 10 euro ordaindu beharko dute.

Bertan, azkeneko Bertso Txapelketa Nagusiko finalean aritutako bertsolari guztiak hartuko dute parte: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Jon Maia, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze, hain zuzen ere. Bildutako dirua saharar errefuxiatu kanpamentuetara bideratuko dute, uholdeen eraginak arintzeko.

Bestalde, hil honen 19an, ekitaldiaren aurkezpen ekitaldia burutuko dute, Tolosako udaletxeko areto nagusian. Bertan Euskadiko Kuxako zenbaki bat luzatuko dute bertan laguntzak eman ahal izateko. Egunean, ETBK Bertso Jaialdia grabatuko du eta, ondoren, emititu egingo du.

GIZARTEA ▶

Tolosaldeko taldea, Gazte Olinpiadetako finalean

N. LATABURU

Tolosaldeko gazteek osatutako taldeak Gazte Olinpiadetako finalerako txartela erdietsi zuten, iragan asteburuan, Ordizian jokaturako finalerdietan. Probintzia bakoitzeko bi talde ordezkariz izango dira finalean, Etxarriko Gazte Topagunean. Hala, eskualdekoak hirugarren postuan geratu baziren ere Zuberoako ordezkariz bezala joango dira. Izan ere, probintzia honetan taldeak falta zirela eta Aretxabaletakoekin bat egin dute Zuberoa ordezkatu ahal izateko.

TOLOSA ▶ MUSIKA

Musika Bandaren eta dultzainarien kontzertua izango da, etzi, bereziki gaztetxoenei zuzenduta

Triangulotik Plaza Berriraino kalejiran abiatuko dira, 19:00etan; buruhandiak ere izango dira

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska bat behar da igandetan tabernan lana egiteko. 943 65 20 24 telefonora deitu 12:30etik aurrera.

SALGAI

Zaldi. Zaldi Burguetea salgai, 4 urtekoa. Aralar mendikoa. Interesatuak deitu 670 20 85 43 telefono zenbakira.

N. LATABURU

Etzi, larunbatarekin, Musika Banda eta dultzainarien kontzertua izango da entzungai.

Pertsona bat behar da Tolosako jatetxe batean zatikako lanaldirako, 12:00etatik 16:00tara eta 23:00etatik 23:00tara.

Tel.: 646 02 29 59

19:00etan abiatuko dira musikariak Triangulotik, eta kalejiran plaza Berriraino ailegatuko dira. Bertan, 19:30ean, kontzertua emango dute.

Bereziki haurrei eskainitako kontzertua izango da plaza Berriraino. Morricone-ren western pelikuletako doinuak, Walt Disney-ko melodia ezagunak, *La gran evasión* filmeko musika eta *The typerwriter* obra alaiaren idazmakina soinuak interpretatuko ditu Tolosako

Musika Bandak kontzertuaren zati batean. Aurretik, Triangulotik abiatuta, dultzainariak, erraldoiak eta buruhandiak kalejiran joango dira Musika Bandarekin batera plaza Berriraino elkarrekin doinuak joz eta dantzatzuz. Plazan bertan dultzaina eta bandarako obra bartzuk interpretatuko dituzte erraldoiek dantzatu dituzten. Haur guztiak eta bere gurasoak gonbidatuta daude musika festara.

TOLOSA ▶ MUSIKA

Alos Quartet-en bakarkako lehen diskoaren aurkezpena

Tolosan estreinakoz ariko dira bihar, Aranburu Jauregian, Xabier Zeberio tolosarra eta bere hiru taldekideak

ESTI EZEIZA

Bakarkako lehenengo diskoa iaz grabatu ondoren, Tolosan estreineko ariko da Xabi Zeberio tolosarraren Alos Quartet laukotea, bihar, 20:00etan, Aranburu Jauregian.

Alos Quartet 1999an sortu zen Euskal Herrian, Et Incarnatus ganbara orkestraren baitan. Hasiara batean, diskoa grabatzeko garaian, Inazio Alkain zen taldeko biola-jolea, baina orain, Ricardo Cuendek ordezkatu du. Xabier Zeberio tolosarrak, Francisco Herrerok eta Pello Ramirezek osatzen dute banda. Oinarrizko formazioa bi biolin, biola eta biolontxeloak osatzen badute ere, tar-



Alos Quartet laukotea. HITZA

teka Nyckelharpa, tleken bidez jotzen den instrumentu suediarra ere jotzen dute. Partaide guztiek ere ibilbide zabala dute musika klasikoan zein modernoan. Taldearen erreperitorioan, musikaren esparru zabal eta anitza jasotzen dute, hari laukote klasikoaren ikuspegi berri bat erakutsiz.

Taldearen izen bera duen lehendabiziko disko honek, *Alos Quartet*, Europa Iparraldeko Steve Dobrogosz eta Terje Bjorklund egileen lanak eta Xabier Zeberio tolosarrarenak biltzen ditu.

Sei urteetako ibilbide honetan, hainbat eta hainbat kolaborazio egin ditu laukoteak. Batetik, 2001. urtetik onra, Kepa Junkerarekin dihardute. Gainera, Los piratas, Oskorri, Bide Ertzean eta Ken 7 taldeekin eta Niko Etxartekin ere egin dute lan, besteak beste.

XABIER ZEBERIO ▶ BIOLIN JOLEA

«Ez da oso musika komertziala, baina adituen kritika onak jaso ditu»

Xabier Zeberio biolina jotzen du Alos Quartet-en, eta disko abestietako batzuk berak konposatu ditu. Egun, Euskadiko Gazte Orkestran, Oskorri folk taldean eta Et Incarnatus Ganbara Orkestran ere jotzen du.

Jendeak Oskorri taldean egindako lanagatik ezagutzen zaitu batik bat. Zein desberdintasun dago bi talde hauen artean?

Bi gauza eta esparru oso desberdinak dira, Oskorri folk musika jotzen du; Alos Quartetekin, berriz, musika kontemporanea, modernoagoa egiten dugu.



IMANOL GARCIA

Diskoko zein abesti aukeratu zenuke?

Nyckel gauak kantua agian, bereizgarri bat baitu, Nickelharpa instrumentuarekin jotzeko egina dago. Hau suediar instrumentu berezi bat da, biolinaren antzekoa; diskoko bi abestitan jotzen dugu, eta soinua berezia ematen du.

Diskoa iazko ustean kaleratu zenuten; zer moduzko harreara izan du?

Ona, ez da oso musika komertziala, baina adituen kritika onak jaso ditu.

Diskoko abestiez gain, gehiago konposatu al dituzue? Proiektu berririk bai?

Disko berririk edo?

Ez, orainoz ez dugu asmorik. Kontzertuan beste bi konposizio berri joko ditugu. Baina bakoiak bere gauzak dauzka eta, orainoz, helburu ez dugu disko berri bat ateratzea. Orain arteko ibilbidea batik bat nabarmendu da beste taldeekin egindako kolaborazioengatik, eta ez guk bakarrik egindako emanaldiengatik, hauek gutxi izan baitira. Orain, adibidez, Rafa Ruedarekin ari gara lanean. Sei urte daramatzagu elkarrekin, eta lehenengo aldia da Tolosan joko duguna. Bestetik, Katalunian ere pendiente dugu kontzertu bat. ◀

IRURA ▶

Herri batzarrera deituta daude gaur herritarrek

Tokiko Agenda 21 prozesuko bigarren herri batzarrera deitu du gaur Irurako Udalak. Bileraren arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan egingo dute, Ikastolan. Bertan, Ekin-tza Planaren oinarri izango diren helburuak aurkeztuko dituzte, eta baita herritarrok ekitzen proposamenak landu eta eztabaidatu ere. Antolatzaileen esanetan, prozesu honetan herritarren partaidetza ezinbestekoa da; eta, horregatik, joan den abenduan, irurarraren ekarpenak jasotzeko Agenda 21eko lehen herri batzarra egin zuten. Bilkura horretan, udalerraren alorrez alorreko diagnostikoa osatzeko ekarpenak jaso zituzten. Oraingoraino, berriz, diagnostiko horretatik ateratako ondorioak abiapuntuz hartuko dituzte.

TOLOSA ▶

Gerontologikoa hizpide Batzar Orokorretan

Gaur, arratsaldeko laueta, Gipuzkoako Batzar Orokorretan ordezkariak duten alderdiak bilduko dira bozketara egiteko. Hain zuzen ere, Tolosako Gerontologikoaren aldeko plataformak Batzar Orokor hauetan esku hartu ahal izango duen ala ez bozkatu dute. Parte hartzeko eskaera hau luzatu dute *Eta orain zer?* plataformakoek, egun «Gerontologikoaren itxiaera dela eta Tolosaldean bizitzen ari garen egoera larria dela eta». Bestalde, etzi, larunbata, Gerontologikoaren aldeko plataformakoek zentro berri bat eskatzeko sinadurak biltzeko mahaiak jarriko ditu berriz ere Tolosan. 11:30etik 13:00etara, Trianguloan, Berdura plazan eta Iparragirren izango da sinatzeko aukera.

▶ **hilberriak** ▶ **urteurrenak** ▶ **eskertzak**

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberria ▶

✠ Xabin Aranbarri Etxaniz

Herenegun hil zen, Azkoitian, 72 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen geran artean
ez zaitugu ahaztuko

ZESTOAKO SENDIAK

helbidea ▶ Koatei baserria (Ormolamendi auzoa)

AZKOITIAN, 2006ko apirilaren 6an



JAVIER SARASA ▶ TXISTULARIA

«Herri askotan txistulariak daude eta lan asko egiten ari dira»

Javier Sarasa txistulariariak urtetan irakatsi du eskualdean; bihar omenaldia egingo diote Anoetako elizan, 19:00etan

IMANOL GARCIA

Omenaldi beroa egingo diote bihar Javier Sarasa txistulariari (Iruñea, 1945) Loatzo musika eskolak eta Anoetako eta Irurako udalek. Anoetako elizan izango da, 19:00etan, eta antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara. Omenaldian Loatzo musika eskolako ikasleek eta irakasleek hartuko dute parte. Anoetako txistulari taldeak ere joko du, eta baita Aitor Arozena eta Gariokit Mendizabal txistulariek ere. Agurra-dantza ere egingo diote. Javier Sarasak abenduan utzi zion txistu klaseak emateari.

Nola hasi zinen txistua jotzen?

11 urte nituela Tolosara bidali ninduten txistua ikastera, Miguel Martinez de Lezearekin. Amak solfeo erakutsi zidan. Oraindik 83 urterekin organoa jotzen du Irurako elizan.

Ikasi ondoren dantzariekin jotzen hasi zinen.

Bai, Anoetako eta Irurako dantza taldeekin aritu nintzen. 15-16 urterekin-edo hasiko nintzen. Herriz herri erromerietan ere jotzen nuen, Pedro Ugarteekin eta Joxe Goiaranekin. Oso oroitzapen onak ditut, lagunarteko giroan aritzen baikin. Orduan, dantza asko egiten



I. GARCIA

zen, erromeri asko izaten ziren. Herriko ekitaldietan ere txistua jotzen nuen.

Eta gero etorri zen txistua irakasten hasteara.

1987an hasi nintzen Anoetako musika eskolan irakasten. Gero Loatzo sortu zen, orain urte batzuk, eta hor jarraitu nuen. Ikasleak izandakoekin Anoetan txistulari taldea sortu genuen, Udalarekin hitzarmena eginez. Hasieran nik ere parte hartzen nuen, baina pix-

kanaka uzten joan naiz, gazteei lekua egiteko.

Nola ikusten duzu txistua osasunez?

Pizten ari da. Herri askotan txistulariak daude eta lan asko egiten ari dira. Orain, Anoetan, ikasle gutxi daude, baina hori moda kontua ere izaten da.

Zer da zuretzat txistua?

Musika asko gustatzen zait eta txistuak garrantzi handia izan du niretzat. Oso momentu onak eman dizkit.

ASTEASU ▶ KIROL ASTEA



Irristalari ugari ginkanan

I. Garcia ▶ 30 haur inguru bildu ziren atzo Asteasuko frontoira, Kirol Astearen baitan, patinaiarekiko ginkanan. Adinaren arabera taldeetan banatu zituzten, hainbat proba egiteko: eslaloma, sokak, hesiak... Bukatzeko, arrapala jarri zuten irristalariak salto egin ahal izateko. Ederki gozatu zuten haurrek eta garbi gelditu zen badela Asteasun patinaiarekiko afiziorik. I. GARCIA

ZIZURKIL ▶ ANTZERKI ASTEA



Otañoiko ikasleen lan bikaina

I. Garcia ▶ Antzezlan bikaina egin zuten atzo Otaño eskolako LHko 1. mailako ikasleek. *Belea eta azeria* ipuina moldatu zuten antzerkirako, eta ederki landu zituzten bai dekoratuak eta baita jantziak ere. Jendaurrean aritzeko gaitasuna dutela ere erakutsi zuten. Antzerki Astearen gaurko emanaldiaren protagonista Eriz Magoa izango da. Bere ikuskizuna Villabonako Gurea aretoan eskainiko du, 16:15ean hasita. I. GARCIA



Villabona - Kultura



MUSIKA
Joseba Tapia
"Real Politik"TM

APIRILAK 7 ostirala
GAUEKO 22:30ean • GUREA ARETOAN

Udal Kultura Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

Tolosaldea 2006-7

telefono listin berria,
Telefonica eta
Euskaltelekin
eguneratua,
Tolosaldeako etxe
guztietan egongo da
hurrengo uztailean.



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Euskarari laguntza ematen

Indarrean dauden hezkuntza ereduak ez dutela euskalduntzen ikusita, Eskolak Euskaldundu ekimenak *Bai Eskolak Euskalduntzeari!* sinadura bilketa kanpaina martxan jarri du Euskal Herri osoan.

Segidakoa da egungo hezkuntza ereduak euskalduntzen duenaren eta ez duenaren *argakia*: kasurik onenean, ikasleria osoaren %31,8 euskaldunduko da, eta beste guztia, hau da, %68,2, ez da euskaldunduko.

Beraz, eskolak ez du euskal-

duntzen, eta milaka batzuk badira eskolatik euskara ezagutu gabe irteten diren haur eta gazteak. Gainera, kontuan izan behar dugu eskolak euskaldundu dituen gazte askok erdietsitako euskara maila hori galdu ere egiten dutela eskola bukatu ostean, eguneroko jardunean erdaraz aritzen baitira.

Zertarako sinadura bilketa? Arestian esan dugunez, eta datuek argi erakusten dutenez, orain hogeita hamar urte inguru martxan jarri ziren hezkuntza eredu horiek ez dute inolaz ere ikasleen euskalduntzea bermatzen, ez dute orduan aurreikusitako emaitzarik lortu, eta, hortaz, bada aldaketarako garaia.

Horretara dator, hain justu,

aldaketa esker, sinadura bilketa erraldoi hau. Euskal Herrian hezkuntza eskumenak dituzten instituzioetara (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Frantziako Gobernua) bideratuko dugu eskaera, indarrean dauden hezkuntza ereduak zein hizkuntza politikak gainditu eta eskolatan euskalduntzea bermatuko duten prozesuak zabal ditzaten eskatuz.

Eta Amezketan badugu horren beharrik ere: Euskal Herrian asko ez bezala, herri euskalduna da; gure haur eta gazteak etxetik dira, ordea, euskaldunak, etxetik dakarte euskara. Hortaz, gure herriko eskolak ikasleak euskalduntze horretan lan handiegirik ez du,

nahiz eta salbuespenak izan, izaten diren.

Horrexegatik, agian, euskarari dagokionez gure egoera pribilegiatua denez, askotan zera iruditzen zaigu, gainerako euskal lurraldeetan duten egoera tamalgarria, ez dela gure arazoa. Guk eta gure haur eta gazteek euskaraz egiten dugunez... Baina horrek ez luke horrela izan behar! Izan ere, guri dagokigu, beste inori baino gehiago, artzain lana egitea, alegia, euskararen normalizazio bidean gidari edota eredu izatea. Guk, euskara badugunok, horren alde borroka egiten ez badugu, zer eskatu euskarari ezagutzeko aukerarik ez dutenei?

Hortaz, Euskal Herri osoan

abian den *Bai Eskolak euskalduntzeari!* kanpaina amezketarrok ere badugu zer esanik. Esan ditugunekin ados bazarete, sinatu beldurrik gabe!

Sinadura bilketarako egunak, lekuak eta orduak zehaztu ditugu. Batetik, Zumadi Eskolan, hilaren 7an, bihar, 16:30ean.

Asteburuan, berriz, herriko taberna aurreetan izango duzue sinadura emateko aukera. Ez dugu ordurik-eta zehaztu. Beraz, hamaiketakoak egitera, poteatzera... azaltzen zaretenean, larunbatean ez bada igandean, hortxe ibiliko gara.

ARITZ LARRETA ETA NEKANE BAUTISTA
(AMEZKETAKO EUSKARAREN ELKARTEAREN IZENEAN) ▶ AMEZKETA

GIZARTEA ▶

Arantzazura joateko autobusetako orduak

Asteasu, Villabona, Tolosa, Bidegoian, Lizartza, Berastegi eta Amezketatik 07:30ean abiatuko dira, ondokoak jasoz

ERREDAKZIOA

Etzia Arantzazura, *Fedea sendotu eta bakea eskatu* lelopean egingo den martxara joateko autobusen ordutegiak eman dituzte jakitera.

Asteasu eta Larraulen autobus geltokian, 07:40ean, aterako dira. Villabonako kiroldegitik 07:50ean abiatuko da, eta Adunako, Zizurkilgo eta Amasako bizilagunak ere hartuko ditu. Iruran Anoetakoak eta Al-

kizakoak elkartuko dira, eta 07:40ean aterako da autobusa, Aizpurua jatetxearen paretik. Tolosako San Franziskokoa 07:55ean abiatuko da, eta Tolosako geltokian Hernialdekoak eta Gaztelukoak ere igoko dira. 07:40ean Leaburukoak Ibarrran hartuko dute. Bidegoian-go autobusa 07:30ean aterako da. Alegiarrek osasun zentroan, 07:40ean, hartuko dute, eta Altxo, Orendain, Aldaba, Ikaztegieta eta Baliarraigoeak hara

joko dute. Albizturren 07:35ean abiatuko da autobusa, Urkizuko Benta Haunditik pasatuz. Berastegitik plazatik 07:30ean aterako da, eta El-duaingo udaletxean, Elduako fabrikako kruzean, Berrobiko geltokian eta Ibarrrako Kultur Etxean geldituko da. Azkenik, Abaltzisketakoak Amezketako elizara joango dira autobusa hartzeko, 07:30ean, handik Ugarteakoak eta Bedaiokoak jasotzeko kruzetik pasatuko da.

ORENDAIN ▶

Adinekoei zuzendutako hitzaldia, gaur

Gaur, 17:00etan, Orendaingo Erretore Etxean, Kutxak adineko pertsoneri zuzendutako hitzaldi bat antolatuko dute Hurkoa Fundaziokoek. Bertan, *Loa, ondo lo egin behar* gaia jorratuko dute. Besteak beste, lo egin beharrezko zer-gatia, loak azkar hartzeko zer egin behar den, eta botikak izango dituzte mintzagai adinekoei.

BIDEGOIAN ▶

Botika naturalen ikastaroa lau egunez

Hilaren 24ean eta 27an, eta maiatzaren 4ean eta 5an, 14:30etik 16:30era bitartean, botika naturalen ikastaroa egingo dute balio anitzeko gelan. Botikak egingo dituzte, eta egiten dituenarentzat izango dira, 4,50 euro ordainduz. Gehienez ere 15 lagun punta daitezke. Udaletxean eman behar da izena.

ALEGIA ▶

Gizon bat hil zuen ertzaina 24ean epaituko dute

Hilaren 24ean epaituko dute 2003ko abenduan «nahi gabe» Alegian gizon bat hil zuen ertzaina. «Zuhurtziagabekeriak egindako giza hilketak» leporatzen diote ertzain honi, 2003. urtean Alegian jazotako gertakari batengatik. Fiskalak bi urteko espetxe zigorra eskatzen du ertzain honentzat, gizon bat hil izanagatik.

Orain, eskuak bere lekuan

Esku libreko kita + Motorola V360 = 0€*

Bluetooth-a, Biko-karrea, GPS

Datavis S.A.
INFORMATIKA Y COMUNICACIONES

San Francisco, 19
Tolosa
☎ 943 688 126

Euskaltel | en Beraztzele Ofizian

IBARRA ▶ AIZKORA

Otañok eta Lasak Olasagastiren aurka egingo dute igandean

Ibartarrak eta legorretarrak pasa den urtean Igeldokoari eginiko desafioa izango da Tolosako zezen-plazan ikusgai



Jexux Mari Lasa legorretarra (ezkerean) eta Unai Otaño ibartarra. HITZA



Olasagasti. A.C. / ARGAZKI PRESS

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Lehenengo proban Olasagastik aurrea ez hartzen saiatuko gara»

Desafiorako 3 egun besterik geratzen direnanean, HITZAK Unai Otañorekin hitz egin du. Entrenamenduak nola izan diren, eta bai legorretarrak eta bai berak apustua nola ikusten duten azaldu du ibartarrak.

Nola egingo diozue aurre Olasagastiri?

Lehenengo proban bere pare-

an joatea, eta aurrea hartzen ez uztea izango da gure helburu nagusia. Hala gertatzen bada, zutikakoan ihes egiteko itxaropena dugu. Baina, lehenengoan alde egiten badigu, gero zaila izango da harrapatzea.

Ondo prestatuta al zoazte?

Lasa topean dago, eta ni, be-

rriz, azken 15 egunetan gorabeherekin ibili ondoren errekupeztan ari naiz orain. Igan-derako ahalik eta ondoen izatea espero dut.

Eta animo aldetik?

Gogotsu gaude, irrikaz. Gainera, ilusio handia egingo liguke Olasagasti bezalako aizkolarari bat mendearen hartzeak.

Zer dio kalean jendeak?

Gehienek Olasagasti jotzen dute faborito bezala, eta lehenengo saioan alde egingo digula uste dute. Hala ere, Urrezko Aizkolarien Txapelketan goruntz egin dugula ikusi dute, eta iritzi aldaketak izan dira. ◀

IÑIGO TERRADILLOS

Aizkora apustu interesgarria izango da ikusgai igandean Tolosako zezen-plazan, 12:30etik aurrera. Hain zuzen ere, Unai Otaño ibartarra eta Jesus Mari Lasa legorretarra batetik eta Joxe Mari Olasagasti igeldoarra bestetik nor baino nor jarriko dituen desafioa.

Apustuak bi proba izango ditu, eta lehenengoan 20 kanerdioko ebaki beharko dituzte; ibartarraren eta legorretarraren kasuan bien artean egingo dute bosnaka txandakatu, eta igeldoarraren kasuan berak egin beharko du lan guztia. Bigarren proba, berriz, 45 ontzako 5 korte zutik ebakitzea izango da; kasu honetan, txanda librean ariko da bikotea eta Olasagastik berak egin beharko du lehenengoan bezala proba guztia. Bestalde, apustuan 3.000 euro eta sarreretakoa dirua jokatu dute.

Irratiko saio batetik...

Pasa den urteko abenduan, urtezahar egunaren bezperan, hain zuzen ere, adostu zuten Otañok eta Lasak batetik eta Joxe Mari Olasagasti igeldoarrak bestetik burutuko duten desafioa. Igeldoarrak Euskadi Irratiko saio batean eginiko adierazpenen atzetik sortu zen ideia. Joxe Mari Olasagastik lehenengo mailako aizkolarari baten aurka edo bigarren mailako bi aizkolariren aurka lehiatzeko prest zegoela azaldu zuen. Hori entzunda, Jexux Mari Lasak Unai Otañori proposatu zion bien artean Olasagastiren aurka egitearena. Ibartarra, bere aldetik, ados azaldu zen; beraz, seguitan jarrri ziren igeldoarrarekin harremanetan. Tolosako Kantabriko tabernan hitzordua egin, Otañok eta Lasak zuten asmoaren berri eman, eta Olasagastik onartu egin zuen. Orduetik, ikusmin handia sortu du igandean izango den desafioak.

BIDEGOIAN-ALEGIA ▶

Tutorearen bisita gaur eta bihar, KZgunean

Gaur izango da tutorearen bisita Bidegoiango KZgunean, 09:00etatik 13:00etara. Alegiako KZgunera, berriz, bihar joango tutorea erabiltzaileen kezka argitzera, 10:00etatik 13:00etara. Halaber, *Fashget* mintegia eskainiko du, 10:00etatik 12:00etara.

IBARRA ▶

Sendi Ekintzako sortzaileekin argazkian

Igandean, Sendi Ekintza elkarteak sortzaile eta lehen-dakari izandakoen argazkia egingo dute elkartearen bertan Meza Nagusiaren ostean. Hitzordu honetara azaltzeko deia egiten diete guztiei, ondoren, argazkia elkartearen jarririko baitute. Argazkiak atezatearekin batera, hamaiketako egingo dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655955

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leizaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Altuna, «muturreko egoeran», 8 kilo galduta

Herrian bildutako sinadurekin gutuna bidaliko dute, kartzelako legeak bete ditzatela eskatuz

I. TERRADILLOS

Haimar Altuna preso politiko lizartarrak 18 egun daramatza gose greban, eta sendiak azaldu duenez, 8 kilo galduta ondoren, 42 pisatzen ditu. Kartzelako sendagileak «muturreko

egoeran» aurkitzen dela eta une batetik bestera Fresnes-ko ospitalera eramango dutela bestera adierazi du. Honen guztiaren aurrean, espetxeko zuzendariak ez duela bera eta beste bi euskal presoekin eskarrietan (hileko bi bisitat ordu-

betekoak izatea) pausurik eman adierazi du sendiak.

Lizartzako Etxerat-ek herrian bildutako sinadurekin (Udalarena barne), kartzelako legeak bete ditzatela exijituz gutuna bidaliko du, eta bihar Eusko Jaurlaritzako Justizia

Sailburuarekin eta Arartekoarekin bilduko dira kartzelako egoeraz mintzatzeko. Halaber, bihar 20:00etan manifestazioa egingo dute Lizartzan, eta 22:00etan Meaux-erako autobusa irtengo da Tolosako Triangulotik.

ARESO ▶ EZBEHARRAK

Aresoar bat hil da lan istripuz

Jose Ramon Aranalde, 41 urteko aresoarra, herenegun zendu zen Madrilgo herri batean (Espainia), maneiatzen ari zen garabiaren besoa hautsi eta kabinaren gainera erori zitzaionean, zanpatuta

JAIONE ASTIBIA

Jose Ramon Aranalde 41 urteko aresoarra herenegun zendu zen, lan istripuz, lanerako zera-bilkien garabiaren besoa azpian harrapatu zuenean.

Langileengan, eta eraikuntza alorrean, gainera, beste heriotz bat gehiago eragin duen lan istripua, Madril (Espainian) gertatu zen, Morata de Tajüña herrian, astearte goizean, 09:50ak aldera, han bertako kare-fabrika bat desegiteko lanetan ari zirela.

Dirudienez, «10 metro altuko kare-biltegi bat erditik moztu nahian» ari ziren fabrika hartan, horretarako «30 metro baino garaiera handiagoko eta 50 tonako beso artikulatudun garabiarekin, muturrean guraize duna» erabiliz. Istripua gertatu zenean, «oraindik argitzeakoak

dauden arrazoiengatik» diote-nez, nonbait «ustezko huts egite mekanikoren batengatik» garabiaren besoa hautsi egin zen, eta «biratu ondoren, bertikalean erori zen justu-justuan kabinaren gainera», makina maneiatzen ari zen langilearen gainera, «zanpatu eta honen berehalako heriotza eraginez».

Lanean hildako 13.a

Lan istripuaren lekura hango anbulantzia medikalizatu bat joan zen arren, ezin izan zuten deus egin, bukaera baieztatzea baino. Aranalderen gorpua jasotzeko tonelaia handiko beste garabi baten beharra izan omen zuten. Aranalde, Lezama Eraspen enpresako langilea zen eta bi egun omen zeramazkiten leku hartan lanean.

Aresoko gizaseme honena



30 metro baino gehiago luze eta 50 tonako garabi artikulatuarekin ari zen lanean Aranalde, istripua gertatu eta bizia galdu zuenean. Irudian, Leitzan iazko apirillean gertatu zena. JAIONE ASTIBIA

aintzat hartuta, aurtan lan istripuz zendu den 13. langilea da.

Herrian, oso ezaguna

Ezustean harrapatu zuen Areso berriak atzo. Zendutakoaren senideekin harremanetan ezin jarririk, bertako udaletxera zuzendu baitziren Espainiatik,

eta hala egin ziren berriaren jabe.

Bi seme-alaben aita, Aranalde Areson oso ezaguna zela baieztatu zuten atzo Udaletik: «Urtean zehar Iruñean bizi bazen ere, udak igarotzera herri-erortzen zen, hemen duten etxera». Herriko hainbat etxeren eta lurren jabe izanik ere,

«bertako jendearekin harreman handiak» zituela erantsiz.

Hala, Aranalderen aldeko hita leta elizkizunak ere «familiarren nahiaren ariara» Areson egitekoak dituztela adierazi zuten bertatik, horretarako gaurko eguna aitatzuz, baina erredakzio hau ixterakoan oraindik zehaztekoa zegoen garaia.

LEITZA ▶ KIROLAK

Aurrera K. E. futbol taldeak omenaldia egingen die zendutako jokalariei etzi

Hiru belaunditako jokalariek elkartuko dira aukeraz baliatuz

J. ASTIBIA

Aurrera K. E. futbol taldeak omenaldia egingen die larunbatean zendutako taldeko jokalariei izandua eta zuzendaritzan egon izan diren kideei. Arratsalde eta gau beteko ekitaldiak prestatu dituzte esker onez, oroimena, kirola, noski, eta «batez ere alaitasuna» ere osagai izan behar dituen. Halaxe adierazi dote HITZARI antolatzaileek.

«Aspalditik genuen, lehengo jokalariek eta guk elkarren aurka jokatzeko gogoia eta nahi hori aitzaki hartuta, festa egun bat egitea bururatu zitzaigun.

Alaitasunez egina

«Eta, hau baliatuz, gure taldeko izan zireen kideak gogoratzea egoki ikusi genuen, eta baita taldearen zuzendaritzan hainbeste urtean lanean aritu direnak ere», azaldu dute. Hala, larunbateko taldearengatik egindako lana eskertzerako dator, «eta batez ere alaitasuna

eta bizitasuna zabaltzera», zioten beraiek, antolakuntzako ñabardura guztiak zaindu nahiz, urduritasun pixka bat ere bazutela aitortzen zuten bi-tartean.

Arkixkil futbol zelaia izanena da omenaldi-jaialdiaren eskenatokia. Arratsaldean, goiz samar hasi, «puntual» nabarmendu dutenez, umorez blai, eta egitaraua bete-bete aurkeztu du Aurrera K. E. futbol taldeak.

Hiru belaundi

Omenaldi ekitaldia egingen dute aurrena, 17:00etan. Alde batetik, Unai Arzallus, Gillermo Gomez eta Iñaki Salbarredik taldeko kide izandakoen senitatekoei, bestetik taldearen aurreko zuzendaritzako kideei, eta hiurgarrennik baita egun Aurrera futbol taldeko bi mailen babesle diren Gorritz Erakuntzak eta Leitz Mandriladora enpresei ere oroigarriak eskainiko dizkiete.

Ondoren 17:30etik aurrera,

kirola izanen da protagonista. Izan ere, Aurrerako hiru belaunditako jokalariek zelairatutako dira: 80. eta 90. hamarkadetakoa eta oraingoak.

«Aurreraren jardunean hiru talde nabarmendu izan dira, eta bereziki, 90. urteetakoak, taldea Preferentera haiek igorazi baitzuten», zehaztu dute. Hiru taldeek elkarren aurka jokatu dute ordu erdiko partiduskak eginez. Atsedenetan, zozketa bereziak egingen dituztela esan dute: «Sarrerarekin, borondatezkoa dena, zenbakia banatuko ditugu eta gero sariak zozketatuko dira, ikusle-artearen». Gainera, «jokoak ere egingen ditugu adin guztietako jendearentzat, bertsoak ere izanen dira... festa giroan ibiliko gara», zioten.

Hori horrela izanik, arratsaldekoa ere hantxe egingen dute, 21:30ean Erleta eskolan egingen dute herri afaria joaterako (apal aurreko poteoa) ere eginez. Zehaztu dutenez, 110 lagunek jada afaritarako txartela hartua dute.

GAZTERIA ▶

Gazte Topagunearen aurkezpen-afaria bihar

Aresoko eta Leitzako gazteentzat, Aurreran egingen dute aurkezpena eta afaria Torrean

J. ASTIBIA

Leitzako eta Aresoko gazteek bihar jakinen dute aurtengo Gazte Topagunearen berri. Izan ere, aurkezpen-afaria egiteko dute helburu horrekin, iluntze partean.

Aurrena, Aurrera elkartean biltzeko deia egin diete Leitzaldeko gazteei, 20:00etarako. Hor bideo-emanaldia egingen dute eta gero hitzaldia, apirilaren 14etik 17ra Etxarri Aranatzeko gertuko Gazte Topagunearen nondik norakoak azaltzeko: «Topagunearen helburuak, guneak, kokapena, eztabaidagaiak, parte hartzeko foro eta bide desberdinak... zehatz azalduko ditugu», adierazi zuten antolatzaileek. Eta bertan parte hartu nahi duten gazteentzat aurkezpena etortzea garrantzitsua dela nabarmendu zuten.

Eta ondoren, «aurkezpen soila egiterik ez genuen nahi eta girotzeko afaria egingen dugun», azaldu zuten. Hori To-

rrera tabernan egingen dute, 22:00ak aldera.

Afariarekin

Menuari dagokionez, zehaztu zuten, entsalada, solomoa patatekin eta izozkia izanen dituzte jaki. Bertara joateko txartelak hartu behar omen dira. Epea gaur bukatuko da, «oso epe laburra», beraiek ere hala jarrita. Txartelak 15 eurotan daude salgai.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Esate baterako egun-eguneko gaia ere badago, parte hartu nahi izanez gero: «ETAren su-eten iraunkorra dela-eta bake prozesua gertuago ikusten al duzu? Erantzun egokia emanen al du Espainiako Gobernuak? Zer aldatuko da?»



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Zizurkil. Eriz magoa. 16:15ean, Gurean. Antzerki Astearen barruan.

DEIALDIAK

Irura. Udaltalde 21 Ernioaldea parte-hartze prozesuaren barruan, herri batzarra diagnostikoaren ondorioak eta helburuak aztertuko. 19:15ean, ikastolan.
Tolosa. Literatur Astea Samaniegon; gaur, irakurketa maratoia.
Tolosaldea. Fedea sendotu eta bakea eskatu lelopean, Arantzazura ibilaldia larunbatean. Eskualdetik hara joateko autobusak antolatuta dituzte. Izena emateko Tolosaldeko parroketara jo behar da.

HITZALDIAK

Tolosa. Santa Maria parrokiaren Garizumako hitzaldiak, euskaraz. Emilio Sotomayor eskolapioa izango da hizlaria bi hitzordutan: 16:30ean eta 20:00etan.
Tolosa. Tolosako historiari buruzko hitzaldia eskainiko du Juanxo Agirrek. 16:00etan, Helduen Heziketa Iraunkorrean.
Tolosa. DBH 4ko ikasleen gurasoentzako bilera, Babxilergoari eta Heziketa Zikloei buruzko informazioa emateko. 19:00etan, Orixen.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Yoji Yamada zuzendariaren *El ocase del samurai*. 21:30ean, Kultur Etxean. Sarrera, 2 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, agenda, elkarrizketak, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.
21:00-23:00. Gau bero musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Elkartasun keinuak Hirukiden

TOLOSA ▶ Elkartasun Astea ari dira egiten Hirukide ikastetxean, Brasilgo Janauba lurraldeko kaleko umeak eta emakumeak laguntzeko helburuarekin



Hirukideko ikasleak, panelekin lan egiten. Emakumeei buruzko erakusketa ikusgai jarri dute Jesuitinetan. HITZA

ERREDAKZIOA

Elkartasun Kanpaina martxan jartzen dute urtero Tolosako Hirukide ikastetxean. Proiektu batean oinarrituta, lurralde bati laguntza ematea izaten du helburu ekimenak eta, era berean, lurralde horren errealitatea ezagutzeko. Aurtengoa ere Elkartasun Kanpainen murgilduta daude ikastetxeak: Aste Santuko oporren aurreko bi asteak baliatuko dituzte ekimena lantzeko.

Aurtengo proiektuak *Atalie*

du izena, eta jasotako dirua Brasilgo Janauba lurraldera bidaliko dute, kaleko ume zein gazteen formakuntza bermatzeko. «Ekimen honetan aspalditik dihardute Mariaren Bihotzeko alaba misiolariak (Gainberri), eta oraingo honetan haiei laguntzea aukera ederra dela iruditzen zaigu», azaldu dute.

Hala, bi aste hauetan hainbat ekintza eta gogoeta ari dira lantzen ikasleekin, baliabide batzuk erabiliz: goizeko otoitza, tutoretza, erlijio eta gizarte saioak, panel-erakusketa...

Ikasleen inplikazioa eta sentsibilizazioa lortu nahi dute horrela.

Erakusketa ikusgai

Elkartasun Kanpaina baliatuz, eta lantzen ari diren gaiarekin bat datorrela ikusita, erakusketa jarri dute Hirukidekoek ikastetxean. Hain zuzen ere, Interred izeneko erakundeak prestatutako *Emakume bat hezitzea herri bat hezitzea da* bilduma dago ikusgai. «Funtsean, aurtengo kanpainen kaleko ume nahiz emakumeen egoera

aztertzen ari gara; eta, era berean, hezkuntza haien etorkizuneari ezinbestekoa dela ere ohararazi nahi diegu ikasleei».

Joan den astean ikasleek bisitatu zuten erakusketa, eta hainbat helburu eta ekintza jorrazteko erabili zuten. Baina «jende guztiari» zabaldu nahi dizkiote lan horiek Hirukidekoek. Hala, aste honetan «Tolosako eta inguruko familia guztiek» ikusi ahal izango dute erakusketa. Bihar arte bisitatu ahal izango da, Hirukide Jesuitinetan, 17:00etatik 18:30era.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...